

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Abuztuko zirkulazio-istripuetan hiru lagun hil dira, iaz hilabete berean baino %57 gutxiago

*Aurten zirkulazio-istripuetan 23 lagun hil dira eta iaz, aldi berean, 34 lagun*

Lunes, 02 de septiembre de 2013

Abuztuko zirkulazio-istripuetan hiru lagun hil dira, 2012an hilabete berean baino %57 gutxiago (iaz zazpi lagun hil ziren).

[Nafarroako Gobernuaren behin-behineko balantzearen arabera](#), aurten 23 lagun hil dira zirkulazio-istripuetan: 19 foru-sareko errepideetan eta lau hiri-bideetan. Hortaz, iazko datuekin alderatuta (34 lagun hil ziren), hildakoen kopurua %32 jaitsi da.

Aurten zirkulazio-istripuetan hildakoetatik 13 (%57) gidariak ziren, zazpi (%30) oinezkoak eta hiru (%13) bidaiariak. Bestalde, 16 gizonetzkoak ziren eta zazpi emakumezkoak; adinari dagokionez, %43 25 eta 44 urte artekoa zen, %26 64 urtetik gorakoa, %17 45 eta 64 urte artekoa, %9 14 urtetik beherakoa eta %4 14 eta 24 urte artekoa.

Zauritu larrien kopuruak ere behera egin du lehenbiziko zortzi hilabeteetan: abuztuaren 31ra arte, 2012an 65 zauritu ziren larri, eta aurten 55, hau da, %15 gutxiago. Zauritu arinen kopurua, berriz, gutxiago jaitsi da, %5, hain zuzen: iaz 301 izan ziren eta aurten 287.

### Abuztuan hiru lagun hil dira istripuetan

Hildakoak izan ziren, hain zuzen, istripu hauetan: [abuztuaren 4an, Ostitzen](#) (Odieta), Iruña eta Behobia arteko N-121-A errepidean, 40 urteko gizona bat hil zen, haren ibilgailuak beste batekin parez parez talka egin ondoren; [abuztuaren 5ean, Aibarren](#), NA-132 errepidean (Lizarrar-Tafalla-Zangoza) ibilgailu batek beste batekin talka egin zuen buruz buru eta 32 urteko gizona bat hil zen (Nafarroako Ospitalegunean, zaurien ondorioz); eta [abuztuaren 17an, Murchanten](#), AP-68 autobidean, ibilgailu bat bidetik atera eta irauli egin zen, eta 33 urteko gizona bat hil zen (Nafarroako Ospitalegunean, baita ere).